



arabako ehgam

Euskal Herriko sexu askapenerako mugimendua

ehgamaraba@gmail.com • <http://ehgam2009.blogspot.com>
Pentsarako Telefonoa: 658 489 693

PRENTSA – OHARRA

EHGAM-ek Dulantziko ezker abertzaleko zinegotzia zoriondu nahi du lesbofobia, transfobia eta homofobiaren kontrako mozioa aurkezteagatik. Gainera, udalbatzarrerara eramatea ahalbidetu duten zinegotzi guztiak ere zoriondu nahi ditu.

Mozio honetan transexualen zein lesbianen kolektiboak kontuan izana nabarmendu nahi dugu. Kolektibo horiek dira gizarteak haien gorputz eta desioekiko duen fobia gehien jasaten dutenak.

Mozioa, gainera, transexualitatearen despatologizazioaren aldeko nazioarteko dinamikarekin aldi berean egin dute. “Trans despatologizazioaren aldeko Sarea”-ak dinamika hau egingo du eta Gasteizen, Donostian eta Bilbon EHGAM-ek antolatuta, beste talde batzuekin batera. Kanpaina honen barruan zenbait ekitaldi antolatzen ari dira. Horietako bat munduko hiri ezberdinetan urriaren 17an konzentrazio bat egitea da. Gasteizen Andra Mari Zuriaren plazan izango da arratsaldeko 18.00etan. Beraz, mozioa oso momentu egokian ageri da dugun herri, estatu, eta nazioarteko testuingurua kontuan hartuta.

Honekin batera, munduan diskriminazio larriak jasaten dituzten LGTB milioika pertsonen elkartasuna dioen puntua nabarmendu nahi dugu. Mauritania, Saudi Arabia, Sudan, Iran, Yemen, Nigeria eta Somaliako zonalde batzuetan heriotza-zigorra dago. Beste 72 herrialdetan gartzela-zigorrak, latigazoak... jasaten dituzte. Heterosexuala ez dena eta araua jarraitzen ez duena egoera larrian dago. Hau da, gaur egun herrialde batzuetan, adibidez Vatikanon, homosexualitatearen despenalizazioaren aurka daude. Beste muturrean, Dulantzi eta Egiletako Udala dauzkagu. Hauek LGTB pertsonak bizitzeko eskubidea eta bakean bizitzearen alde daude.

Honetaz gain, testuan zehar egiten den LGTB kolektiboarekiko hurbiltzea aipatu nahi dugu, Udaleko eraikuntzan bertan heteronorman ez dauden



arabako ehgam

Euskal Herriko sexu askapenerako mugimendua

ehgamaraba@gmail.com • <http://ehgam2009.blogspot.com>
Pentsarako Telefonoa: 658 489 693

pertsonak egoteko aukera ematen duelarik. Ohituta ez gauden jarrera berria da hau, armairu instituzionalatik ihes egiten baitu eta batzuk sinestu nahi duten baino askoz errealitate ohikoagoa agerian uzten duelako.

Hau guztia kontuan hartuta, EHGAM-ek kolektibo honetako zenbait pertsona udalbatzarrera joango direla jakinarazi nahi du hurbiletik jarraitu ahal izateko. Horrela, Dulantzi zein Egiletako hiritar guztiekin poza partekatuko dugu eta lesbofobia, tranfobia eta homofobiaz aske den eta askapen sexualerako irekia dagoen gizarte baterako bidea partekatu ahal izango dugu.

EHGAM

Euskal Herriko sexu askapenerako mugimendua

Gasteizen 2009.ko urriaren 9.a